

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak gure bezeroekin izango duen harremana oso garrantzitsua izango da, pertsonala eta automatizatua izango baita.

Alde batetik, aurrez aurreko zerbitzua egongo da. Bezeroak gure lokalean aurkeztuko dira modu presentzian (lokala ekonomikoki eskuragarria izango da). Lokal horretan, gure jatetxea jarriko dugu, "Ekojan" izena izango duena. Bertan, gure bezeroei arreta zuzenagoa eta pertsonalagoa emango diegu.



Bestalde, online eskaerak egiteko aukera ere eskainiko dugu, hau da, web orri bat izango dugu, non gure menu eta eskaintza guztiak izango ditugun, eta non eskaerak egin ahal izango dituzten, deitu beharrik gabe edo lokalera joan beharrik gabe. Gure webgunean ere telefono zenbaki bat aurkituko dute, eta bertara deitu ahal izango dute haien eskaerak egiteko eta horrela gure produktuen informazioa lortu ahal izateko errazago. Telematikoki aldetik ere aplikazio bat sortuko dugu, gure bezero guztiek deskargatu ahal izango dute eskaerak egiteko eta aparteko ofetaren bat lortzeko.

Azkenik, gure bezeroak mantentzeko ekintzak egingo ditugu, hala nola: gure jatetxean eskaera bat egiten duten bakoitzean lortu ahal izango diren kupoiak egingo ditugu. E-mailak bidaltzea gure eskaintza berriekin, edo menu bereziak egiteko ditugu zenbait pertsonarentzat, hala nola, beganoentzat, glukosarekiko intoleranteentzat...